

Bilboko Haur Kultur Zirkuitua

iku*si* eta ika*si*

txotxongiloak,
ipuin kontalariak,
magia, antzerkia...

3-12 urte



2011ko
URTARRILA - OTSAILA - MARTXOA

B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO
EUSKARA SAILA

zeurea da hitza
euskara
no te lo pierdas

IKUSI ETA IKASI 2011

Berriro dugu ate joka IKUSI ETA IKASI, zuetako askorentzat klasiko bihurtu dena. Urtearen hasierarekin batera Bilboko umeei eskaintzen dizuegun programazioa. Aurten ere zuen eskura euskarazko ikuskizunik onenak. Denetik izango duzue, antzerkia, pailazoak, magia, musika.

Badakigu zain zaudetela zuen udaltegiko aretora zazpigarren urtez segidan joateko. Aurten nobedadetxoak ekarri digu IKUSI ETA IKASIk: lehenengo aldiz Bilborock Aretoan izango dira ikuskizun batzuk. Uste dugu etxetik ahalik eta hurbilen topatu behar dituzuela zuen gustuko ekitaldiak eta, alde horretatik, lehenengo urtean Indautxurako zabalkundeari -Karmen aretoa goraino bete zenuten asteazkenetan-jarraipena eman nahi izan diogu aurten Zazpi Kaleetara eta Bilbo Zaharrera zabalduz. Azken batean, programa Bilbo osora zabaltzea da gure helburua.

Eta bereziki eskerrak eman nahi dizkizuet gurasoei, protagonista umeak izan arren zuen aldeko jarrera eta laguntzarik gabe programa honek ez lukeela lortuko orain arte izan duen arrakasta. Zeuentzako saio batzuk prestatu ditugu, umeen ikuskizunen aldi berekoak gehienak, interes handiko gaiekin, Bilbon euskara normalizatzeko lan honetan denok garelako lehen mailako protagonista.

La séptima edición de IKUSI ETA IKASI está a la vuelta de la esquina. Con el nuevo año llegan otra vez a Bilbao los mejores espectáculos infantiles en euskera. La oferta es de lo más variada, con teatro, magia, música, payasos; todo lo que a vosotras y vosotros os gusta tanto.

Y además en escenarios cerca de vuestra casa. Así como el pasado año el programa se extendió a la zona de Indautxu -lleno en el Salón del Carmen todos los miércoles-, en esta edición queremos estrenarnos en la Sala Bilborock para atender la demanda existente en la zona de la Siete Calles y Bilbao La Vieja. Nuestro objetivo es, en definitiva, extender la oferta a todo Bilbao.

Para terminar, quiero agradeceros muy especialmente a las madres y los padres vuestra actitud positiva hacia el programa porque, si bien está dirigido al público más joven, vuestra colaboración ha resultado definitiva en el éxito de IKUSI ETA IKUSI. Hemos preparado para vosotras y vosotros una programación con temas del máximo interés, porque en la empresa del impulso del euskera en Bilbao todas y todos somos protagonistas de primer orden

Ana de Castro Rubalkaba

EUSKARA ZINEGOTZIA | CONCEJALA DE EUSKERA

EGITARRAUA

EGUNA	ORDUA	LEKUA	TALDEA
01/17	17:30-18:30	Begoñako udaltegia	Jolasen Txokoa
	18:30-19:30	Begoñako udaltegia	Jolasen Txokoa
01/18	17:30-18:30	Begoñako udaltegia	Jolasen Txokoa
	18:30-19:30	Begoñako udaltegia	Jolasen Txokoa
01/21	17:30-18:30	Deustuko Bidarte udaltegia	Jolasen Txokoa
	18:30-19:30	Deustuko Bidarte udaltegia	Jolasen Txokoa
01/22	10:30-11:30	Deustuko Bidarte udaltegia	Jolasen Txokoa
	11:30-12:30	Deustuko Bidarte udaltegia	Jolasen Txokoa
01/25	18:00	Begoñako udaltegia	Hipo eta Tomax
01/26	18:00	Bilboko Karmen aretoan	Eidabe Antzerkia
01/27	18:00	Bilboko Tiboli eskolan	Panpin Panpox
01/29	11:00	Deustuko Bidarte udaltegia	TTR Teatro
02/01	18:00	Begoñako udaltegia	Txotxongilo Taldea
02/02	18:00	Bilboko Karmen aretoan	Kiki eta Koko
02/03	18:00	Bilboko Bilborock aretoan	Txan Magoa
02/05	11:00	Deustuko Bidarte udaltegia	Apika Taldea ipuin kontaketa
02/08	18:00	Begoñako udaltegia	Onintze eta Gari Kontukantari
02/09	18:00	Bilboko Karmen aretoan	Eriz Magoa
02/10	18:00	Bilboko Tiboli eskolan	Sointek Antzerkia
02/12	11:00	Deustuko Bidarte udaltegia	Kuko, Truko eta Bolenwaider
02/15	18:00	Begoñako udaltegia	Txoborro Magoa
02/16	18:00	Bilboko Karmen aretoan	Potxin eta Patxin
02/17	18:00	Bilboko Bilborock aretoan	Zirika Zirkus
02/19	11:00	Deustuko Bidarte udaltegia	Ana Meabe ipuin kontaketa
02/22	18:00	Begoñako udaltegia	En La Lona Antzerkia
02/23	18:00	Bilboko Errekaldeberri eskolan	Rosa Martinez-en Txotxongiloak
02/24	18:00	Bilboko Tiboli eskolan	Monda eta Lironda
02/26	11:00	Deustuko Bidarte udaltegia	Tor Magoa
03/01	18:00	Begoñako udaltegia	Peio Zabala ipuin antzeztua
03/02	18:00	Bilboko Zurbaran eskolan	Patata Tropikala Antzerkia
03/03	18:00	Bilboko Bilborock aretoan	De Bote en Bote
03/05	11:00	Deustuko Bidarte udaltegia	Antzekizuna Ginol Taldea
03/08	18:00	Begoñako udaltegia	Zurumurru Taldea
03/09	18:00	Bilboko Zamakola eskolan	Kidam Magoa
03/10	18:00	Bilboko Tiboli eskolan	Xalto Pailazoa
03/12	11:00	Deustuko Bidarte udaltegia	Ines Bengoa ipuin kontaketa
03/15	18:00	Begoñako udaltegia	Goloka Taldea
03/17	18:00	Bilboko Bilborock aretoan	Ane Monna, Oskola eta Karramarroi Antzerkia
03/19	11:00	Deustuko Bidarte udaltegia	Ttinbili Ttanbala Taldea

JOLASEN TXOKOA

Urtarrilaren 17an eta 18an (astelehena eta asteartea)
17:30etatik 18:30era eta 18:30etatik 19:30era
Begoñako udalategian (Circo Amateur Club Deportivo 2)

Urtarrilaren 21an (ostirala)
17:30etatik 18:30era eta 18:30etatik 19:30era
Deustuko Bidarte udalategian (Lehendakari Agirre, 42)

Urtarrilaren 22an (larunbata)
10:30etatik 11:30era eta 11:30etatik 12:30era
Deustuko Bidarte udalategian (Lehendakari Agirre, 42)

Haur eta gurasoei zuzenduriko erakusketa dinamiko bat da. Bertan, euskarazko mahai jolas, jostailu, ipuin, DVD eta jolas elektronikoak erakusgai egongo dira; Aisialdian adituak diren dinamizatzaileen eskutik hainbat dinamika antolatuko dira era errez eta dibertigarrian, jolas eta jostailuak ezagutzeko. Haurrentzat nahiz gurasoentzat euskarazko jolasekin gozatzeko aukera paregabea.

Exposición dinámica dirigida a niños, niñas y familiares donde se podrán conocer de primera mano juegos de mesa, juguetes, cuentos, DVDs y juegos electrónicos en euskera gracias a expertos dinamizadores.

HIPO ETA TOMAX

Urtarrilaren 25ean (asteartea) | 18:00etan
Begoñako udalategian (Circo Amateur Club Deportivo 2)



“Beldurraren etxean”

Hipitolomeo beldurtuta dabil, baina zorionez Tomasen laguntza izango du ikara guztiak uxatzeko. Horretarako gure protagonistek Drakula, Sorgina, Frankestein eta beste zenbait pertsonaiekin jolastuko dute.

Txantxa, barre, abesti zein jokoen bitartez denok beldurra dugula eta honi aurre egin behar zaiola ikasiko dugu. Baina lasai, guk barrez lehertzeko aukera baino ez dugu izango!

Hipitolomeo está asustado, pero su amigo Tomás logrará ahuyentar sus temores gracias a la ayuda de Drácula, Frankestein y una bruja.

EIDABE ANTZERKIA

Urtarrilaren 26an (asteazkena) | 18:00etan
Bilboko Karmen aretoan (Indautxu plaza z/g)



“Ipuin ez ipuin”

Ipotx Burumotz berriro ere bereak eta bi egiten dabil. Oraingo honetan ipuin bat kontatzen saiatuko da, baina artaburu horrek beste hainbat ipuin nahastuko ditu! Eskerrak Hasier eta Amaia neba-arreben etxean izan dela, eta jolas eta antzerkiaren bitartez ipuin guzti-guztiak berregingo dituela. Bukaeran, Ipotx Burumotz gaixoaren ipuina zein den jakingo dugu, baita nora ezean ibiltzearen zergatia ere.

Ipotx Burumotz sigue tan travieso como de costumbre. Esta vez intentará contarnos un cuento, pero lo único que va a conseguir es mezclar varios.

PANPIN PANPOX

Urtarrilaren 27an (osteguna) | 18:00etan
Bilboko Tiboli eskolan (Tiboli 5)



“Txaroni eta Lulu-ren abenturak”


Luluk oporretan joateko maleta prest dauka, baina arazo bat duela ohartu da: hizkuntza ez du ondo menperatzen. Gauzak nola esaten diren jakiteko umeen laguntza eskatuko du.

Txaroni, ordea, Euskal Herrira heldu berria da. Gure kultura ezagutu nahi du baina... nola elkar ulertuko dute? MUSIKAREN bitartez; bere maletan ekarritako akordeoiari esker.

Lulu se marcha de vacaciones pero tiene una gran preocupación: el idioma, por lo que necesitará la ayuda del público.

TTR TEATRO

Urtarrilaren 29an (larunbata) | 11:00etan
Deustuko Bidarte udalategian (Lehendakari Agirre, 42)



“Salam!”


Mendebaldea eta ekialdearen arteko kultur harremanak estutzeko gure karabana zuen herrira etorri da zuen gobernuak gonbidaturik. SALAM publikoa plazara eramaten duen kalejira bat da. SALAMek Mendebalde eta Ekialdearen arteko benetako muga non dagoen aurkitu nahiko luke.

Bi beduinoak eta euren gameluak gozaraziko digute Magrebeko arte herrikoia benetako erakustaldi batekin eskenatoki inprobisatu batean. SALAM tradizioa eta modernitatearen artean, yate bat eta patera batean artean, turismoa eta inmigrazioaren artean bizi da.

La compañía de teatro TTR, con la obra “Salam” quiere encontrar los verdaderos límites que hay entre oriente y occidente.

TXOTXONGILO TALDEA

Otsailaren 1ean (asteartea) | 18:00etan
Begoñako udalategian (Circo Amateur Club Deportivo 2)



“Itsasminez”

Osaba Joxek oparitutako maskorraren bidez Argik itsasoa arriskuan dagoela jakin eta itsasertzera joatea erabakiko du. Bertan, itsasoko arrain pilo batekin topo egingo du, baita ilargiarekin ere.

Itsasminez ikuskizunak itsasorekiko begirunea eta maitasuna sustatuko ditu ipuin, kanta zein txotxongiloen bitartez.

Argi se percata del peligro que sufre el mar , por lo que decide acercarse a analizar la situación. Allí se topará con muchos peces y la luna.

KIKI ETA KOKO

Otsailaren 2an (asteazkena) | 18:00etan
Bilboko Karmen aretoan (Indautxu plaza z/g)




“Irriparra barra barra”

Kiki eta Koko pailazoenak bazter guztiak alaitasunez bete nahi dituzte. Gure lagunak ezinean dabiltzala ikusirik, bat batean, lamia bat azaltzen da eta, ur-tanta garbi eta puruak eskaintzen dizkie. Ondorioz, urak ingurumen osoa garbitzen du. Bestetik, istorio honetan bada arbola ihar bat ere. Pailazoenak, publikoaren partaidetzarekin, jorrai-dantza eginez gogoz laguntzen diote eta azkenean arbola azalberritzen hasten da, eta hostoak ateratzen zaizkio. Aldaketa liluragarri hura ikusirik, arbola barruan bizi zen harra arbolaren hosto txit gozoak jaten hasten da. Arbolak egoera latz honen aurrean laguntza eskatuko digu.

Kiki eta Koko nos mostrarán que toda acción tiene su consecuencia, y sus actos buscan llenar todos los rincones de alegría.

TXAN MAGOA

Otsailaren 3an (osteguna) | 18:00etan
Bilboko Bilborock aretoan (Mesedeetako kaia, 1)



Txan Mago ezaguna, ume, gazte zein helduak, magiaren mundura bueltatxo egitera animatu gaitezen dator. Mundu horretan sartzeko pasahitza ezaguna da: “Artxila Murtxila ” esan, putz egin, begiak itxi, zabaldu... eta harrapatuta zaude!

Prestatu zaitez “Txan-tzetan” ikuskizun berria ikusteko, ordu bete zur eta lur igaro eta aretotik sineskor baina, batez ere, zoriontsu irteteko.

El conocidísimo mago Txan, nos invita a conocer el misterioso mundo de la magia mediante trucos alucinantes para los niños/as.

APIKA TALDEA

Otsailaren 5ean (larunbata) | 11:00etan
Deustuko Bidarte udalategian (Lehendakari Agirre, 42)



“Mundu bira”

Edonork bidaiatu eta mundua ezagutu dezakeela ikusiko dugu kontaketa honetan... baita liburutegitik irten gabe ere! Ipuinen eta irudimenaren bidez.

Hain bidaia interesgarria egiteko ezinbestekoa den gauza bakarra... gogoia da. Edozein helburu lortzeko gogoia behar, hor dago gakoa!

Todos podemos viajar y conocer mundo; con la imaginación y las ganas todo es posible.

ONINTZE ETA GARI KONTUKANTARI

Otsailaren 8an (asteartea) | 18:00etan
Begoñako udalategian (Circo Amateur Club Deportivo 2)



Onintze eta Garik hiru ipuinen protagonisten istorioak kontatuko dizkigute.

Eguzkia eta Ilargia haserretu egiten dira eta Lurrak bitartekari lanak egingo ditu, beraien arteko amodioa agerian utziz. Bestetik, Nafarroako erregina oinordeko bila dabil, horretarako bere erreinua arakatuko duelarik. Oztoporik topatuko al du? Neba konforme egongo al da?

Azkenik, Botadun Katuak bere nagusia aberats eta zoriontsu egingo duela erabakitzen du. Horretarako zuen laguntza ezinbestekoa izango da.

El Sol, la Luna, la Tierra, la Reina de Navarra y el Gato con Botas protagonizarán los cuentos de Onintze y Gari.

ERIZ MAGOA

Otsailaren 9an (asteazkena) | 18:00etan
Bilboko Karmen aretoan (Indautxu plaza z/g)



Ongi etorri Eriz Magoaren mundu zoragarria. Birziklapen eta magiaren laguntzarekin zenbait hanka-sartze konpontzen saiatuko da, gatz eta piperbeltz ikutuarekin: umore fina eta guzti.

El Mago Eriz donde intentará solucionar sus meteduras de “pata” con la ayuda de la magia, el humor y el reciclaje.

SOINTEK ANTZERKIA

Otsailaren 10ean (osteguna) | 18:00etan
Bilboko Tiboli eskolan (Tiboli 5)



“Berziklatze fabrika”

Kortxea Doktorea, eta bere lagunak diren Filomena eta Koxmek, ingurumena zaintzearen garrantzia azaltzen saiatuko dira. Musika eta jolas dibertigarrien bidez konturatu gabe elektrizitatea, ura eta egurra alferrik galtzen ditugula, eta honen ondorio lazgarrietaz ohartaraziko gaituzte. Hau da, birziklapena eta kontsumoaren erabiltze kontrolatuaren bidez, arazo hau mantsotu dezakegunak garela. Ziur kalte kate hau denon artean gelditzea lortuko dugula, eta gainera oso ondo pasatuaz. Umorea eta ingurugiroa *Berziklatze fabrikaren* eskutik!

Kortxea, Filomena y Koxme nos concienciarán , en clave de humor, sobre la importancia de conservar los recursos naturales y cuidar el medio ambiente.

KUKO, TRUKO ETA BOLENWAIDER

Otsailaren 12an (larunbata) | 11:00etan

Deustuko Bidarte udalategian (Lehendakari Agirre, 42)



“Kuko, Truko eta Bolenwaider maskota berriarekin”

Oraingo honetan, Bolenwaiderrek sorpresa berri bat dauka Kuko eta Truko, bere lagunentzat. Zer ote da? Asmakizun berria? Bere bidaietan aurkitutako pieza arraroren bat...? Ez, gaurko sorpresa berezia da. Iletsua, begi maitagarriak bere aurpegitxoan... Asmatu duzue jada?

Bai noski, maskota batekin dator, eta gure bikote paregabearekin batera, etxetxo eder bat egin behar dio, baina Kuko eta Truko tartean egonik ez da hain erreza izango, jakina. Pasadizo dibertigarriak, ezustekoak eta mila aldrebeskeri galantak Kuko, Truko eta Bolenwaiderren azken ikuskizunean. Ikusi beharrekoa!

Bolenwaider tiene una sorpresa para Kuko y Truko; ¿qué será...?. Dos pistas nada más: es peludo, tiene unos ojitos adorables y le deben construir una caseta.

TXOBORRO MAGOA

Otsailaren 15ean (asteartea) | 18:00etan

Begoñako udalategian (Circo Amateur Club Deportivo 2)




Magiaren eta umorearen arteko sinbiosi hobeina da, eta artearen askotariko arloak tartekatzen ditu. Arlo horiek denek nola edo hala magiarekin zerikusia dute, esaterako txinatar itzalak, malabarismoa eta globoflexia. Hori guztia, jakina, magia tradizionalaren diziplina guztiekin batera doa: kartomagia, hurbileko magia, aretoko magia, manipulazioa, etab...

El Mago Txoborro nos dará a conocer el mundo de la magia mediante sombras chinescas, malabarismos y globoflexia.

POTXIN ETA PATXIN

Otsailaren 16an (asteazkena) | 18:00etan
Bilboko Karmen aretoan (Indautxu plaza z/g)



“Zirkoa ezagutuz”

POTXIN eta PATXIN artistek zirkoko bizimodua erakusgai ipiniko digute. Beraien esperientziari esker, zirkoa zer den eta bertan egiten duten artisten berri izango dugu (akrobatak, trapezistak, funanbulistak, pailazoak, mimoak ...) oso modu umoretsu eta entretenigarrian. Hortaz gain Potxin eta Patxinek jolasen bitartez artista izateko urratsak irakatsiko dizkigute. Zirko zaleentzako ikuskizun ahaztezina!

Potxin y Patxin nos adentrarán en el increíble mundo del circo mediante juegos y grandes dosis de humor. Una apasionante forma de vida de la que nos harán partícipes y fieles seguidores.

ZIRIKA ZIRKUS

Otsailaren 17an (osteguna) | 18:00etan
Bilboko Bilborock aretoan (Mesedeetako kaia 1)



“Bazen behin zirkoa”

Loretsu eta Bolintxe ikuskizun berri bat egiteko prest agertu dira, eta egin ere haien txirindulatxoetan egin nahi dute. Ikusleak agurtu, Zirika Zirkus rokanrola dantzatu (Zirikaroka) eta irakatsi ondoren, hara! Sorpresa! Altxor bat aurkitu dute: hamaika ipuin eta lagun...

Irakurtzeak duen garrantzia eta ze dibertigarria, ze aberasgarria den erakutsiko digute umore klabearekin.

Loretsu eta Bolintxe nos presentan un nuevo espectáculo circense en el que los cuentos serán los grandes protagonistas.

ANA MEABE; IPUIN KONTAKETA

Otsailaren 19an (larunbata) | 11:00etan
Deustuko Bidarte udalategian (Lehendakari Agirre, 42)



“Bazan kalazan!”

Historian zehar kontatu diren ipuin guztiak kalabaza magikoaren baitan gordeta daude. Orain gutxi , baina, norbaitek kalabaza lapurtu du. Lasai lagunok, Marilur kalabaza berreskuratzen saiatuko da, eta horrela “Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan” esaten jarraitu ahalko du.

Ha desaparecido la calabaza que guarda todos los cuentos de la historia en su interior. Marilur se adentrará en una apasionante aventura para intentar recuperarla; ¿lo conseguirá?

EN LA LONA ANTZERKIA

Otsailaren 22an (asteartea) | 18:00etan
Begoñako udalategian (Circo Amateur Club Deportivo 2)



“Barre laborategia”

Laborategi batean bere kasa dabilen pailazo edo hobeto esanda, zientzialari eszentriko batek, beste profesional batzuei (ikus-entzuleei) dei egingo die; magia dirudi baina ez da. Izan ere, presioan oinarritutako hiru esperimentu fisiko dira: arrautza botila baten nola sartu; globoekin hogeitak pertsonentzako airezko koltxoi bat zelan egin; nola sortu suziri ekologikoa ura erregai bakarra izanik.

Barre eta algara artean ikus-entzuleak umorearen laborategi honetan parte hartuko du.

Un payaso, es decir, un científico excéntrico, pedirá ayuda al público para esclarecer tres experimentos científicos.

ROSA MARTINEZ-EN TXOTXONGILOAK

Otsailaren 23an (asteazkena) | 18:00etan
Bilboko Errekaldeberri eskolan (Errekalde plaza 3)



“Rosa ipuin bat kontaidazu”


Koldoren ipuin gogokoenetako protagonistek, “Hiru lumak”, baso ilun bat zeharkatu beharko dute. Horretarako, beraien lagun txoriek emandako lumez baliatuko dira. Dena den, laguntzarik handiena neska-mutilengandik jasoko du, hitz, kantu zein mugimenduen bidez.

Koldok, loak hartutakoan, egundoko tren koloretakoarekin amets egingo du. Trena, ohiko burdinbideetatik atera eta leku zoragarrietarantz abiatuko da: Koloredun arraina, hegazkin eta zaldiek lagundutakoa.

Los protagonistas del cuento preferido de Koldo tendrán que cruzar el bosque y para ello utilizarán las plumas de sus amigos los pájaros.

MONDA ETA LIRONDA

Otsailaren 24an (osteguna) | 18:00etan
Bilboko Tiboli eskolan (Tiboli 5)




“Zorionak”

Lironda bere lagun mina den Mondarekin elkartu da bere urtebetetze eguneko opariak erakutsi eta hauekin jolasteko. Mondak Lirondari opari galanta egin nahi dio, kandelak amatatzean eskatutakoa hain zuzen, baina horretarako ume guztien laguntza behar du. Mondari Lirondaren ametsa betetzen laguntzeko prest al zaude? Zatoz Lirondaren zorion jaira.

Lironda ha quedado con su amiga Monda para jugar con los regalos de su cumpleaños. Monda le tiene preparada una gran sorpresa, pero para eso necesita vuestra ayuda.

TOR MAGOA

Otsailaren 26an (larunbata) | 11:00etan
Deustuko Bidarte udaltegian (Lehendakari Agirre, 42)



Umeak, saio dibertigarri eta partehartzaile honetako protagonista nagusiak dira. Bertan, Tor-ren umore eta laguntzarekin magia, sorpresa asko eskainiko digun ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu. Zatoz lagunekin ondo pasatzera!

El Mago Tor nos dará a conocer el mundo de la magia con grandes dosis de humor.

PEIO ZABALA; IPUIN ANTZEZTUA

Martxoaren 1ean (asteartea) | 18:00etan
Begoñako udaltegian (Circo Amateur Club Deportivo 2)



**“Basoan norbaitek
sufritzen duenean baso
osoak sufritzen du”**

Huntz iratxoa ez zegoen inoiz kontentu, sekula gustura ez, beti umore txarrean, eragin zezakeen kalteari erreparatu gabe. Behin batean, Basajaunak huntz-korapiloz bete zion gorputza. Jakina, min hartu zuen. Askatzekotan, egindako kalteak ordaindu beharko zituen. Batetik, basoko gatazkak bideratzen lagunduz eta, bestetik, hurrei ipuinak kontatuz.

El duende protagonista nunca estaba contento, siempre realizaba sus actos sin pensar en las consecuencias, hasta que ... ¿qué sucederá?.

PATATA TROPIKALA ANTZERKIA

Martxoaren 2an (asteazkena) | 18:00etan
Bilboko Zurbaran eskolan (Zumaia 1)



“Mendiko altzorra”

Mendi guztiek arima bat eta altxor bat gordetzen dute. Ni mendi honetako arima naiz eta beraz altxor bat gordetzen dut. Dena den, mendi berezia nauzue, itsasoarekin muga egiten baitut eta izaki asko nirekin bizi direlako: muskerrak, loreak, karramarroak, olagarroak eta iratxoak. Elkarrekin pozik bizi gara, naturarekin bat eginez... Gaur ordea Gizon Metalikoak etorri dira. Hauek, altxorren bila datoz eta edozer gauza egiteko prest daude...

Laguntasuna, elkar lana eta natura bezalako baloreak bultzatuz, izugarrizko kolore eta irudimen jaia dakarkigu!

Todas las montañas guardamos el alma y un tesoro en nuestro interior. Cotizado tesoro que los Hombres Metálicos pretender robar.

DE BOTE EN BOTE

Martxoaren 3an (osteguna) | 18:00etan
Bilboko Bilborock aretoan (Mesedeetako kaia 1)



“Argotu”

Malabarismoak, akrobaziak, antzerkia eta musika zuzenean nahasten dira mundu osotik etorritako artistak taularatzen dituen antzezlari honetan. Tango jotzaileak, malabarista holandarrak, txinatar akrobata magia zalea, arabiar su jaleak, suge dantzariak eta amaitzeko errusiar hirukote akrobata ezagutuko ditugu umore eta jolasen bitartez.

Malabares, acrobacias y música se entremezclan para presentarnos a músicos de tango, malabaristas holandeses, un acróbata chino...

ANTZEZKIZUNA GINOL TALDEA

Martxoaren 5ean (larunbata) | 11:00etan
Deustuko Bidarte udaltegian (Lehendakari Agirre, 42)



“Pinotxo”

Maese Antoniok hitz egiten duen egur puska bat aurkitu, eta Geppetto zurginari oparitu dio honek panpina bat egin dezan. Pinotxo (panpinaren izena) ume bat bezalakoa izango da: hitz egiten eta ibiltzen jakingo du. Geppettok eskolara bidali nahi du baina Pinotxo abenturaz abentura ibiliko da eta eskolarako bidea galduko du. Bukaeran, bere bihotz zabalak eta bere ausardiak benetako pertsona bihurtuko dute.

A Geppeto le han regalado un trozo de madera para que pueda fabricar un muñeco; creación que tendrá vida propia.

ZURRUMURRU TALDEA

Martxoaren 8an (asteartea) | 18:00etan
Begoñako udaltegian (Circo Amateur Club Deportivo 2)



“Txurrimurri eta Morritoston zirkoan”

Txurrimurri eta Morritoston beraien zirko txikia aurkeztuz bidaiazten duten bi pailazo dira. Dena aldrebes egiten dutela dirudien arren azkenean guztia ongi ateratzen zaie. Zirko honetan malabare, akrobazia, klowna, publikoarekin jolasa, dantza eta magia, musika eta umorez blai gozatzeko aukera izango dugu.

Txurrimurri y Morritoston son unos divertidos payasos que viajan por el mundo para mostrar su pequeño circo.

KIDAM MAGOA

Martxoaren 9an (asteazkena) | 18:00etan
Bilboko Zamakola eskolan (Zamakola kalea, 174)



Baina hori ezinezkoa da! Ezinezkoa dirudi, baina posible da.

Kidam-ek bere magia ikuskizun pertsonala aurkezten du! Familia osoarentzako saioa; parte-hartzea, harridura eta umore fina ziurtatzen dituen. Kidam-ek berrasmaturiko magia joko klasikoak eta orain arte ikusi izan ez diren beste batzuk nahasten ditu magia elegante eta ikusgarrienarekin.

El mago Kidam, nos mezclará con mucha elegancia y espectáculo los juegos clásicos de magia con los actuales.

XALTO PAILAZOA

Martxoaren 10ean (osteguna) | 18:00etan
Bilboko Tiboli eskolan (Tiboli 5)



“Show berria prestatzen”

Eguraldi ona egiten duenez, Xalto pailazoak mendira egun pasa joatea erabaki du. Beren bila joan behar zuen furgonetari gurpila zulatu zaio eta denbora nolabait bete beharrean aurkitu da. Show berria prestatzeari ekingo dio publikoaren laguntza zuzenarekin. Dekoratu bizia, musika, abestiak, efektuak, dantzak eta txoro kantak.

Los payasos sufren un pinchazo de camino al monte, por lo que el payaso Xalto decide ocupar el tiempo creando un espectáculo.

INES BENGEOA IPUIN KONTAKETA

Martxoaren 12an (larunbata) | 11:00etan
Deustuko Bidarte udalategian (Lehendakari Agirre, 42)



“Kamishibai”

Ines Bengoa Japoniako ohituretatik ekarritako ipuinak zein sortu berriak kontatuko ditu herrialde horretako Kamishibai teknikaren bitartez. Honela istorioak entzun bitartean irudi lagungarriak ikusgai izango dira. Irudiek irudimenarekin bidaiaztera, jolastera, barre egitera eta parte hartzera gonbidatzen gaituzte. Animatzen al zarete?

La cultura japonesa estará presente en los cuentos de Ines Bengoa mediante el contenido y la técnica Kamishibai que permite ilustrar los cuentos mediante imágenes.

GOLOKA TALDEA

Martxoaren 15ean (asteartea) | 18:00etan
Begoñako udalategian (Circo Amateur Club Deportivo 2)



“Wolingen garatxoa”

Woling eta Miuling txinatarrak poz-pozik bizi dira arroz landatzen. Wolingen kezka bakarra aurpegian duen izugarrizko garatxoa da eta erremedio guztiak frogatuko ditu, medikuntza arrunta, medikuntza naturala, intxixuak... baina ezin. Azkenean inoiz espero ez zuen lekuan aurkituko du konponbidea, basoan.

Los chinos Woling y Miuling viven felices cultivando arroz. Un día a Woling le sale una verruga en la cara y deciden probar remedios.

ANE MONNA, OSKOLA ETA KARRAMARROI ANTZERKIA

Martxoaren 17an (osteguna) | 18:00etan
Bilboko Bilborock aretoan (Mesedeetako kaia 1)



“Ino Ino Ino badator Bonbardino”

Ane Monna haurdun dago eta laster umetxo bat edukiko du; bere izena Bonbardino izango da. Eskolara joaten hasten denetik, bere ikasgelako neska ergel eta piji batek, Lady Pinpirinak, etengabe trufak eta bihurrikeriak egiten dizkio. Bonbardino zapuztuta dago eta inork ez duela maite sentitzen duenez, oso erabaki inportantea hartuko du...

Zer gertatuko da Bonbardinok boligrafo magikoa erabiltzen duenean? Zer esango dio Lamiak basoan zehar topatzen duenean?

Bombardino, sufrirá las travesuras y el desprecio de sus compañeros de clase; ¿Qué ocurrirá cuando decida utilizar su boligrafo mágico?

TTINBILI TTANBALA TALDEA

Martxoaren 19an (larunbata) | 11:00etan
Deustuko Bidarte udaltegian (Lehendakari Agirre, 42)



“Lide eta Ximon”

“Begira Ximon zer ekarri dudan, Hitzen lapurraren ipuina! Gogoratzen zara ezagutu ginen egun hartaz? Denetarik izan genuen: lagun berriak, hitz politak, koplak, jolasak eta... lapurra!”. Hitzen lapurrarekin gertaturikoak berriz biziko dituzte. Hara! Ximonek ez du lapurrarekin gertaturikoa oroitu nahi. Zergatik ote? Dirudienez, Lide haurren laguntzaz baliatuko da gertatu zena argitzeko.

Nuestros protagonistas recordarán el día en el que se conocieron. ¿Por qué Ximon no quiere recordar lo que ocurrió entonces?

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzailea

